

txintxarri

Lehen urratsa, taldean

Martxan jarri dute Euskaraldia gure herrian ere; elkarteak eta eragileak mugiarazi dituzte aurrena / 3

TXINTXARRI

Hitz eta errima gosez darraite

Irakurle Txokoak hamargarren aldiz aurrera eramango du bertso saio literarioa, bazkari eta guzti, Xirimirin / 9

Topaketa iragarri dute eskualdeko etxeetako eta elkarteetako emakumeek / 2

Sahararentzat 1.150 elikagai eta bestelako produktu bildu dituzte egun bakarrean / 5

Emanaldi eder eta hunkigarria eman dute Alboka eta Itsasoa abesbatzek, San Pedro elizan / 6

Dardo txapelketa kooperatiboa berreskuratu dute Jalgune elkarteak kideek / 7

Alex Saletak Munduko txapelketarako sailkapena eskuratu du Espainiako selekzioarekin / 10

Atletak, judokak eta igerilariak ederki jardun dira txapelketa ezberdinetan / 11-12-14

OTSAILAK 22 /

10:00 - Erdi maila /

11:30 - Goi maila eta espezializazioa /

MARTXOAK 25 /

17:00 - Erdi maila /

MARTXOAK 27 /

17:00 - Goi maila eta espezializazioa /

APIRILAK 5 /

10:00 - Erdi maila /

11:30 - Goi maila eta espezializazioa /

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko

ATEAK ZABALIK

IZENA EMAN

tel. 943-36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS





Extremadura etxean aurkeztu dute herriko elkarte eta erregio etxeetako emakume elkartekideen topaketa. TXINTXARRI

Elkarteetako emakumeen topaketa antolatu dute

Txupinazo eta agurrarekin ekingo diote egunari martxoaren 16an, eta karaokearekin amaituko. Tartean, askotariko jarduerak iragarri dituzte, eta horietan parte hartzera deitu dituzte emakume elkartekide lasarteoriatarak

Txintxarri

Lasarte-Oriako erregio etxeetako eta elkarteetako emakume elkartekideen topaketa eguna ospatuko dute martxoaren 16an. Hala jakinarazi dute zenbait elkarteetako kideek, berriki, Virgen de Guadalupe Extremadura Etxean aurrera eramán

duten prentsurrean. Agerraldi hori baliatu dute, azpimarratzeko Lasarte-Oria bere kultura ondareaz harro dagoen herria dela, eta aberastasun horren oinarri gisa aurkeztu dituzte erregio etxe eta elkarteak. Gaineratu dute, aniztasun eta elkartzasun horren muinean, ai-

patu espazio horien lana dagoela, baita bertako kide diren emakumeena ere.

Azpimarratu dute, euren "dedikazio eta grinarekin" bizirik mantendu dutela jasotako herentzia, eta, kasu batzuetan, horrekin batera, euren erregioetako sustraiak ere bai. Halaber,

Sexu erasoak jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzua

Hariberria zerbitzua aurkeztu du udalak; indarkeria sexuala jasan duten emakumei arreta integrala eskaintzea du xede

Txintxarri

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek aurkeztu du Hariberria zerbitzua, eta esan, 24 orduz eta urteko 365 egunetan erabilgarri egongo den arreta zerbitzua izateaz gain, "laguntza behar dutenentzat babesgune seguru, konfidentzial eta irisgarria" bermatzen duela. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekime-

na da, eta udal ordezkariak azpimarratu du gizarte langile, psikologo eta abokatu osatutako diziplina anitzeko talde baten eskutik informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dituela, zehatz-mehatz honako hauek: sexu erasoaren aurrean arreta integrala eta berehalakoa; biktimen berreskuratzea errazteko arreta psikologikoa; esku-

bide eta prozesu judizialari buruzko aholkularitza eta orientazio juridikoa; berreskurapen prozesuan gizarte laguntza eta sostengua; poliziaren, justiziaren edo osasunaren arloetako laguntza profesionala; eta, biktimentzako, haien ingurukoentzat eta profesionalentzako sensibilizazioa eta orientazioa.

Zerbitzua erabat doakoa dela nabarmendu du Fernandezek, eta esan, horren erabilera egin nahi duenak honako telefono zenbakira deitu behar duela: 900-84 01 88. Ohartarazi du 24 orduetan erabilgarri egongo dela.

Gauzak horrela, Lasarte-Oriako Udaletik, laguntza behar

gogorarazi dute guztien arteko elkar ulertzea eta lotura sustatu dituztela, eta bide beretik jarraitu nahian, beste behin ere herriaren kultur intereseko edukia sortzeko desira agertu dute, eta horretarako, erabat berri-tzaileak diren askotariko jarduerak aurrera eramateko asmoa dute. Gauzak horrela, Lasarte-Oriako eragileen artean kultura trukeak eta elkarrekiko ezagutza sustatzeko helburuari arreta berezia eskaini nahi diote, horretarako, emakumeek herriko elkarte bakoitzean duten parte hartzearen gaineko hausnarketa partekatua eginda.

Topaketa, datorren hilean

Arestian aipatu bezala, martxoaren 16rako iragarri dute lehen topaketa. Begi bistakoa da herriko elkarte eta erregio etxeek antolatutako jardura dela, eta, egun horretarako prestatu dituzten ekimenen berri ere eman dute. Zenbait datu oraindik zehazteke dituzten arren, azaldu dute txupinazo eta agurra izango direla goizeko lehen jarduerak; 11:00etan izango dira horiek. Ordu laurden geroago, 11:15ean, berriz, kalejiran ibiliko dira Oaintxe in deu! txarangak lagunduta; pintxo-potea ere egingo dute, herriko elkarteetan barrena (zeintzuetan izango den aurrerago jakinaraziko dute). Hori eta gero, 13:30ean, gaiaren gaineko gogoeta egingo du Bea Egizabal umoregileak Extremadura etxean, eta saio hori amaituta, bazkaria egingo dute, leku berean (14:15ean). Menua ere jakinarazi dute: Extremadurako

gazpatxoak; sagardotan egositako txistorrarekin egindako mamiak; ardo beltz saltsarekin kozinatutako masailak, patata purearekin, eta izozkia ananarekin. Edateko, berriz, ardoa, sagardoa eta ura izango dute bertaratzen direnek, eta kafea edo infusioa ere. Bertaratu nahi dutenek aldeztatik erosi behar dituztela ohartarazi dute antolatzaileek, eta, esan, bakoitzak bere elkartearen bertan eskuratu behar dituela. 80 bazkaltiarrentzat lekua izango dela aurreratu dute, eta prezioa ere bai: 30 euro. Sabelak beteta, karaokean arituko dira, 17:00etan, Extremadura etxean.

Hori guztia esanda, herriko elkarte eta erregio etxeetako bazkide diren emakumei dei egin diete egitasmoan parte hartzera anima daitezten.

Agerraldia amaitu aurretik, azaldu dute udalak diruz lagundutako jardura izango dela, eta, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan aurkeztuko duela.

HERRIKO ELKARTE ETA ERREGIO ETXEETAKO EMAKUMEAK PARTE HARTZERA GONBIDATU DITUZTE

BAZKARIRAKO TXARTELAK HILAREN 28A BAINO LEHEN ESKURATU BEHAR DITU INTERESDUNAK



Irudiotan Gizarte Zerbitzuetako eraikina: Mirentxu. TXINTXARRI

duten pertsona guztiei zerbitzu hori erabiltzeko deia egin die: "Indarkeria sexualaren aurkako

borrokan eta emakumeen eskubideen babeserako aurrerapauso handia da".



Entitateetako ordezkariak arretaz jarraitu zituzten talde eragileko kideen jarraibideak. TXINTXARRI

Neguan landatzen hasi, udaberrian loratzeko

Abian jarri dute Euskaraldia gure herrian ere eta koordinazio guneko kideek mugiarazi dituzten lehenengoak izan dira elkarte eta eragileetako ordezkariak. Egitasmoaren helburuak eta maiatz amaierara arteko bide orria azaldu dizkiete

Iñigo Gonzalez Sarobe

Otsailaren erdian hasi dira maiatz beteaz loratzeko diren haziak landatzen. Gero eta jende gehiago hartu aitzurra, orduan eta lore gehiago, ederrago eta koloretsuagoak. Horren jakitun, gure herrian Euskaraldia prestatzen ari diren Lasarte-Oriako Udaleko eta Ttakun Kultur Elkarteko kideek garbi dute

herritarrak aktibatzekeko estrategia zein den: "Ezinbestekoa da elkarten eta eragileen indarra; norbanakoengana iristeko taldeetatik abiatu nahi dugu".

Maiatz bukaerara arteko bide orri bat prestatu dute koordinazio gunea osatzen dutenek; ez da kasualitatea aurreneko mugarrigisa entitateetako ordezkariekin aurkezpen bilera bat egin izana.

Udaletxeko multimedia gelan elkartu dira dozena pare bat pertsona eta Agustin Valdivia alkateak egin die harrera, bilkuran zehar landu dutena testuinguruan jarrita: "Dakizuen bezala, maiatzaren 15etik 25era egingo dugu Euskaraldia; gezurra dirudi, baina, konturatzerako, laugarren aldia iritsi zaigu. Udalak izena eman du dagoeneko eta entitateok

ere baduzue horretarako aukera". Norbanakoek, berriz, martxoaren 15era arte itxaron beharko dute.

Epe luzerako erronka

Udaleko Euskara zerbitzuburu Ana Labakak hartu du hitza ondoren, Euskaraldia helburuak zeintzuk diren gogorarazteko: "Euskararen erabilera handitzea, biziberritzea eta hizkuntza gutxitu izatetik normalizatu izatera igarotzea. Erronka epe luzerakoa da". Beste alor askotan gertatzen den bezala, esatea errazagoa denez egitea baino, xede horien eskizari jarraitzeko entrenatu behar diren garrantzia azpimarratu du: "Euskaraldia laugarren aldia egingo dugu, hizkuntza ohiturak astindu eta euskararen erabilera sustatzeko mugimendu soziala. Horretarako, norbanakoak nahiz eragileak aktibatuko ditugu".

Jarraian, Euskaraldian zehar kontuan izan beharreko lau jarraibideak izan ditu hizpide: edonon eta edonorekin lehen hitza euskaraz egitea; hitz egin ez baina ulertzen dutenek euren euskaraz egiteko eskatzea; hizkuntza horretan mintzatzeko gai direnek gaztelaniaz, ingelesez edo beste edozein modutan ez hitz egitea; eta bakoitzaren rola (Aho-bizi edo Belarriprest, aurreko aldietan bezala) identifikatu eta erakusteko txapak eskuratu eta jantzea. Udalerrian, batez ere, bigarren profil hori indartu nahi dute, hau da, euskaraz ulertu bai baina hizketaldi bat gauzatzeko gai ez den jendeara, "horrelako asko ditugulako".

Koordinazio gunekoek behin baino gehiagotan egin diote elkarraldi hau, orain arte burutu dituzten bileretan: "Nola iritsi gaitezke jende gehiagorengana?". Bide horretan, argi dute "aliatuak" behar dituztela eta

asko lagun dezaketela elkarteek eta eragileek, edo, bestela esanda, entitateek. "Gako zarete eta horregatik jo ditugu zuen ateak", azaldu du Ttakun Kultur Elkarteko kudeatzaile Haritz Salaberriak. "Hiru gauza" eskatuko dizkiete: "Ekimenaren berri ematea, kideak Euskaraldian parte hartzeraz gonbidatzea eta mugimendu horri ikusgarritasuna ematea".

Maiatz amaierara arteko mugarririk zeintzuk diren esplikatzen du segidan. Hilabete honetako, esan bezala, entitateengana jotzea izan da. Martxoan ekimen nagusiak norbanakoaren izen emateko epea irekitzea eta bideo lehiaketa martxan jartzea izango dira. Azken hori da aurtengo berrikuntza nabarmenena. Martxoaren 10etik maiatzaren 4ra parte hartu ahaliko dute herriarrek, hiru modalitate hauetan: banaka edo binaka, taldeka edota familian. Minutu bateko ikus-entzunezkoak grabatu (sakelako telefonoarekin) eta bidali beharko dituzte. Xehetasun guztiak laster emango dituzte, baina aurreratu dute irakurleen eta epaimahaiaren sariak "oso erakargarriak" izango direla. Apirilaren 12an, berriz, gune ibiltaria ekarriko dute eta maiatzeko izango da txanpa zirraragarria, batez ere, 15etik 25era artekoa.

Bilera bukatzeko, Bulego taldeak Euskaraldirako prestatu duen kanta entzun eta abestu dute: *Gure bihotzaren taupadak*.

NORBANAKOEN MARTXOAREN 15ETIK AURRERA IZENA EMAN AHALIKO DUTE EUSKARALDIAN



LASARTE-ORIAKO
EUSKAL ZIKLOA
DOKUMENTALEN



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Zinera joan nahi duzu doan?
txintxarri-k sarrerak zozkatuko ditu!

Otsailak 14 20:00etan FILM LABURREN EMANALDIA



Eman izena:



Otsailak 21 20:00etan




Eman izena:



ZINZINDURUNKARRATZ
Oskar Alegria

Otsailak 28 20:00etan



Eman izena:



ITOIZ udako sesioak
Larraitz Zuazo, Zuri Gokoetxea, Ainhoa Andreaka

Itsas hondoa ezagutzera joan dira, kultur etxera

Martxan da XVII. Itsaspeko Zinema Zikloa. Berriki inauguratu dute argazki erakusketa, eta lehen ikus-entzunezkoen proiektzioak ere aurrera eraman dituzte; harrera ona egin diete herritarrek. Hilaren 17an eta 24an izango dira hurrengo proiektzioak

Txintxarri

XVII. Itsaspeko Zinema Zikloko antolatzaileek eta udal ordezkariak argazki erakusketa inauguratu dute. Kultur etxe-ko lehen solairura (kafetegi zaharra zegoen espazioa) joan behar dute hori bisitatu nahi dutenek, eta hilaren 26ra arte izango dute horretarako aukera. Horrekin batera, ikus-entzunezkoen lehen proiektzioa ere aurrera eraman dute. Harrera ederra izan du deialdiak; ikuslezu bete da aipatu eraikinetako auditorioa. Bertan izan dira David Sanchez eta Lourdes Anza zikloaren arduradunak, eta baita Agustín Valdivia alkatea eta Kultura zinegotzi Aina Elichechea. Inaugurazio argazkia atera eta bisitariari harrera egin ostean, lehen proiektzioak aurkeztera jaitsi dira, auditoriora.

Ekitaldiari hasiera emateko aurkezpen laburra egin dute Anzak eta Sanchezek. Beste zenbait daturen artean, aurtengo leloari ere egin diote azpimarra; irudigileen lana jarri nahi izan dute balioan.

Datozen bi emanaldiak ere gogorarazi dituzte; hilaren 17an eta 24an izango dira, eta horietara ere joateko deia egin diete aretoan bildutakoek.

Hitzartzea amaituta, lehen film luzea proiektatu dute. Telmo Irigorri eta Manuel Coronadoren *Urak Lawoi*, *Brothers of the sea* ikusi dute bertaratu direnek. Thailandiako itsas hondoa grabatutako lana da eta bertan murgildu ditu Lasarte-Oriako ikusleak. Horrez gain, beste lau film labur ikusteko parada ere izan dute. Horren ostean, zenbait film labur ere ikusi dituzte aretoan bildutakoek.

Datozen hitzorduak

Hilak 17, astelehena

• **Film luzea:** *Islas Canarias, Arrecifes de Lava.*

• Film laburrak:

- *A Dragons Dance*
- *Equilibrio El balance oculto del océano*
- *Anima Oceani*
- *Islas Cies: biodiversidad amenazada*
- *Sharks*
- *Momentos*

Hilak 24, astelehena


• **Film luzea:** *Nika - El calderon tropical*

• Film laburrak:

- *Red Alert On Corals*
- *Raja Ampat. The last paradise.*
- *Magic of the Macroverse*
- *A truly Plastic Neutral Fishery*
- *Heart os the Sea*



Zikloko ordezkariak, eta udalekoak, argazki erakusketa inauguratzen. TXINTXARRI



'Shark Man - The Depths Within' ikus-entzunezkoa ikusi dute bertaratu direnek. TXINTXARRI



ZABALETA AUZOLAN

Txuri Urdin izotz jauregian irristaka

Egun ederra igaro zuten hilaren 8an Txuri Urdin izotz jauregia irristaka aritzera joan ziren Zabaletako auzotarrek. Gaztetxo zein heldu, guztiek jantzi zituzten patinak eta bueltaka ibili ziren pista zabalean, nekatu edota asperu arte.

Goizean erabilitako indarrak berritzeko, Zabaleta Auzolan elkartearen lokalean babarrun goxo eta beroak jan zituzten, sakramentu eta guzti: odolkia, txorizoa eta txerri saiheskiak. Bazkalostean, haurrentzako film bat proiektatu zuten.

TEK energia komunitateko bazkide izateko aukera

Energia eredu jasangarriago bat sustatzeko aldera, Lasarte-Oriako Udalak berriz ere zabaldu du Tokiko Energia Komunitateko (TEK) kide izatearen onurez gozatzeko kanpaina: "Ekimen honek aukera ematen die lasarte-oriatarrei eguzki energiaren onurak izateko, inolako instalaziorik eta hasierako inbertsiorik egin beharrik gabe". Izena ematen duten aurreneko 25 bazkideek lagun bat animatzen badute, hiru hilabetetan ez dute kuotarik ordaindu behar. Are gehiago, lau pertsona ekartzen dituztenek urtebetez parte hartu ahaliko dute egitasmoan, doan. Informazio gehiago, 900-85 96 95 telefono zenbakian.

Pentsiodunek 800 sinadura inguru bildu dituzte dagoeneko

Hileroko pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzea (1.184 euro) eskatzen duen Herri Ekimen Legegilea babesteko atxikimendu ugari lortu ditu herriko pentsiodunen talde batek aste gutxitan. Hiru jasoketa egun aurrera eraman dituzte eta jakinarazi dute 800 atxikimendu inguru bildu dituztela dagoeneko, eta "oso pozik" daudela horregatik. Halaber, ekimen hori koordinatzen ari den Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduari firma gehiago jasotzeko pleguak eskatuko dizkiotela aurreratu dute, eta aurkezpen bilera bat egingo dutela Biyak Bat elkartearekin, hilaren 21ean.

Mila kilotik gora jaso dituzte errefuxiatu sahararrentzat

Elikagai eta produktu kutxa mordoak bildu dituzte Lasarte-Oriako Eroski eta BM Loidibarren supermerkatuetan: pasta, arroza, lekaleak, kontserbak, konpresak... Andoaingo biltegiara eramane dituzte, bertan antolatu eta Mendebaldeko Saharara bidaltzeko ondoren. 1.150 elkartasun kilo bildu dituztela jakinarazi dute ekimenaren antolatzaileek

Txintxarri

Jende ugari parte hartu zuen Mendebaldeko Saharako herritarrentzako askotariko produktuen bilketan Eroski eta SuperBM supermerkatuetan, hilaren 8an. Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak postu bana jarri zuen bi establezimendu horietan, bezeroek erosketak egin ahala, beharrezko produktuak erraz eman zitzaten: arroza, pasta, kontserbak, lekaleak (dilstak, txitxirioak eta babarrunak), konpresak eta azukrea. Herritarren prestutasuna handia izan zen, goizeko hamarretatik ordubetara jende asko gerturatu baitzen laguntzeko asmoz.

Aipatutako produktuak jaso ahala kutxetan sartu eta furgoneta batean kargatu zituzten, Andoaingo biltegiara eramateko. Bertan zenbait zuten egun horretan zehar udalerrian bildutakoa eta jakinarazi zuten 1.150 kilo elikagai eta produktu bidaliko dituztela Mendebaldeko Saharara.

Halaber, gogorarazi dute elkartasun ekimen gehiago aurrera eramango dituztela hilabetea bukatu aurretik: hilaren 27an, ostegunarekin, 19:30ean, Mendebaldeko Sahararen aldeko manifestazioa burutuko dute Okendo plazan.



Herritar ugari lagundu zuten, antolatzaileek banatutako txarteletako jarraibideei men eginda. TXINTXARRI



Talde eragileko zenbait kide, Andoaingo biltegiako kartoizko kutxa artean, pozik. SAHARAREKIN ELKARTASUNA L-O



Leroy Merlin eraikitze lanak hasi dituztela ohartarazi dute

Errekaldeko merkataritza gunen berria eraikitze zuhaitzak botatzen hasi direla jakinarazi du Eguzki talde ekologistak

Txintxarri

Lasarte-Oria eta Donostiaren arteko mugan dagoen Errekaldeko industriagunean brikolajearekin lotutako kate baten merkataritza gunen berria eraikitze lanak hasi dituztela

ohartarazi du Eguzki. Arbuiatu du aipatu eremu horretan ez dagoela lekuri, eta hain zuzen ere, lekua egiten hasi direla Coca Cola zena eta Funeraria Vascongadaren atzeko partean, bigarren Ingura-

bidetik jaisten den mendi hegalean.

Errekaldeko industrialdeak, izatez, "gabezia nabarmenak" dituela nabarmendu du Eguzki: "Espaloi ziztrin bat ere ez du, eta Lasarte-Oriarekin oinezkoentzako lotura zuzenik ere ez. Pentsatzekoa da merkataritza-gune berriarekin gauza horiek ez dutela hobera egingo, alderantziz baizik". Adierazpen horiek egitearekin batera, gogorarazi dute hori guztia esan zutela proiektua izapidetu zenean.



Lanak hasi dira. EGUZKI TALDE EKOLOGISTA



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Merezi ote?

Goizeko zazpi eta erdiak dira eta hotz egiten du. Baina korrika egitera joateko jaiki naiz, eta nekez, nagi eta motel bada ere, abiatu naiz.

Haize hotzak aurpegia laztantzen dit, zorrotz.

Hasieran erraz noa ordekan, herriko kaleetan barrena, baina laster hasi naiz arnasestuka gorantz, mendirako bidexkan aurrera. Eskuak estutu ditut, eta hotzaren minez ia zatika haustearen sentsazioa izan dut, baina sudurretik airea sakon hartuz, pausoa azkartu dut maldan gora. Arnasa sutan, pausok astun, bihotza bero, bularra taupadaka lehertu beharrea eta zainak puzturik. Zangoak mugitzeko eskatzen dit buruak, baina giharrak erantzun nahi ez balute bezala sentitzen ditut. Bularrean dandada egiten dit bihotzak, sumendi batek lez isurtzen du odola gorputz osoan barrena, bor-bor.

Bidea luzea da oraindik tonorreraino, baina ez noa gertuzera. Oinak lur bustian hondoratzen dira lokatzetan, basurdeek aztarrikatutako hezegunetan, orkatiletaraino, baina aurrera.

Gorputza nekea pairatzen hasia da, arnasa motz, bihotza bizkor eta bularrean sua. Gorantz noa pauso luzean, aurrerantz makurturik eta urratsak konstatuz bat, bi, hiru...

Eguna argitzen hasi du; eguzki izpiek zuhaitz biluzien artean egiten dute keinu eta gailurra ere bistaratu daiteke une batez.

Tontorrera iristearen pozak irentsi nau. Izerditan bustitako azala freskatzen dit haizeak, eta arnasestuka oraindik eta belarrik dardarka, ingurua behatzen dut, bertako pake eta lasaitasunaz jabetuz. Behean geratu dira nekeak, nagiak eta minak, eta momentu zoragarri honetaz gozatea besterik ez dut.

Herria esnatze dago oraindik, baina laster hasiko da eguneko erritmoa hartzen. Nik bitartean, inguratzen nauten bazter mirengarri hauetaz gozatzen jarraituko dut, beharrezko bidea hartu aurretik.



Organoa dagoen aretoan ekin zion Albokak kontzertuari, 'Zure magalera' pieza interpretatuta. TXINTXARRI



Bederatzi abestiko errepertorioa erakutsi zuen Itsasoa. TXINTXARRI

Alboka eta Itsasoa abesbatzen erakustaldia

Bi taldeen arteko elkartrukeak Biarritz eta Lasarte-Oria bateratu ditu, San Pedro parrokian. Abesbatzetako bakoitzak bere erreperториoko zenbait abesti eman ditu eta kontzertua itxi duen 'Agur Maria' kantua elkarrekin interpretatu dute; txalo ugari jaso dituzte bueltan



Ikus-entzule ugari bertaratu ziren kontzertura. TXINTXARRI

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Elkarren berri iaz izan zuten Alboka eta Itsasoa abesbatzek emanaldi hunkigarria egin zuten hilaren 8an, San Pedro parrokian. Bertaratu ziren dozenaka lasarteoriatarrek euskal kantuez gozatzeko aukera izan zuten ordubeteko ikuskizun horretan. Lehenbizi, gure herriko taldea

aritu zen, aurreneko pieza (*Zure magalera*) organoa dagoen aretoan interpretatu zuen, ohi bezala, Montse Latorreren zuzendaritzapean. Biarritzetik etorritako koruari lekukoa eman baino lehen *Brodatzen-godalet* eta *Imanolen hiru abesti* eskaini zituen, ordurako eszenatoki gisa erabili zuten aldarera jaitsita.

Ikus-entzuleek lehen zatia luze eta ozen txalotu bitartean egin zuten aldaketa: egurrezko aulkietan eseri ziren Albokakoak eta aldarea hartu zuen Itsasoko kideek, Frederic Sorhaitz zuzendaria buru zutela. Bederatzi pieza interpretatu zituzten: *Xalbadorren heriotzean*; *Fandango*; *Azken dantza hau*; *Alda-*

peko; *Gernika*; *Ala baita* (bertsio instrumentala, biolinarekin eta pianoarekin); *Baga biga higa*; *Maitia, nun zira?*; eta *Ai Mari Miguel*. Abeslariez gain Amaia Dorronsoro eta Macarena Valladares aritu ziren pianoan.

Biek ala biek eman zuten emanaldi hunkigarria biribil-

tzeko, elkartu eta *Agur Maria* abestu zuten. Berriz ere bi taldeen lana saritu zuten ikus-entzuleek eta ez zen hori azken aitortza izan: Latorrek eta Sorhaitzek lore sorta bana jaso zuten Alboka eta Itsasoa maizuki zuzentzeagatik, hurrenez hurren.

Pablo Mutiozabal Martin hil da, lasarteoriatar askoren medikua

la-ia azken egunera arte jarraitu du bere eguneroko martxarekin, 85 urterekin joan zaigun arte

Txintxarri

1939ko urriaren 15ean jaio zen Pablo Mutiozabal Martin. Bere aita, Pablo, Lasarteko eta Hernaniko medikua zen eta txikitatik errotu zuen semearengan Medikuntzarekiko interesa eta zaletasuna. Gauzak horrela, Salamanca Unibertsitatean lizentziatu zen eta aitarekin batera hasi zen lanean, Okendo plazako frontoi atzeko anbulategian. Horren aurretik, Pablo Mutiozabalek (aitak) Severino Mendizabalen bodegan zuen kontsulta bat, herritarrak bertan artatzeko. Lasarte eta Her-

nani artean ibili izan zen zeregin horretan.

El Diario Vasco egunkariko gure herriko berriemaile ohi Txema Vallesek jakinarazi duenez, aita eta semea 60. hamarkada amaieran hasi ziren elkarrekin lanean, esan bezala, Okendoko pilotaleku atzeko anbulategian. Ondoren, Adarra kalekoan (Gurutze Gorriak du egoitza han gaur egun), Hipodromoko etorbidekoan (berak inauguratu zuen) eta Bekokalekoan (gaur-gaurkoz han dago osasun zentroa) aritu zen, 2009ko urriaren 15ean (70



Pablo Mutiozabal Martin, 2010ean. TXEMA VALLES

urte bete zituen egunean bertan) erretiroa hartu zuen arte. Osakidetzan lan egiteaz gain, kontsulta partikular bat ere izan zuen Mutiozabalek, toki batean baino gehiagotan: Insausti taberna goialdeko pisuetako batean

(Geltoki kalea) eta Pablo Mutiozabal kalean (Urdaneta izena zuen lehen eta bere aitaren omenez berrizendatu zuten, 80. hamarkadan). "Esan daiteke lasarteoriatarren medikua izan zela, oso atsegina eta gertuko; herri-

tar askok eta askok nahi izan dugu berak artatua izatea".

Marisa Abrego andoaindarrekin ezkondu zen Mutiozabal, 30 urterekin. Bikoteak lau seme alaba izan ditu: Pablo, Gerardo, Marisa eta Xabi. Medikuntza izan zuen ogibide eta zaletasun, baina ez bakarra, izan ere, txiki-txikitatik motorraren eta ibilgailuen mundua maite izan zuen. "Motocross gidari izan zen eta probaren batean parte hartu zuen, Andatza mendia inguruan".

Herrian oso ezaguna izan zen eta beti gustatu izan zitzaion lagunekin planak eta festak egitea. Horren adibide, Jatorrena marmitako jai, duela 30 urte pasatxo Felix Urtizberearen tailerrean hasi zena. Donostiako Aste Nagusiaren bueltan egin zuten beti topaketa hori, abuztu erdialdean.



Txapelketa amaitu eta gero talde argazkia atera zuten parte hartzaileek, giro ederrean. TXINTXARRI



Zirraz jarraitu zituzten dardo txapelketako jokaldiak. TXINTXARRI

Dardo txapelketa berreskuratu du Jalgunek

Bikoteka jokatu dute eta dardoekin behar bezala apuntatzea zaildu dieten zenbait erronka burutu behar izan dituzte parte hartzaileek Mendi Cafe Rock tabernaren aretoan. Final zirraragarria jokatu dute eta Edorta eta Itziar gailendu dira

Lierni A. Urdanpilleta-Iñigo G. Sarobe Lasarte-Oriako Jalgune elkarteak Dardo Txapelketa Kooperatiboa ospatu du berriki Mendi Darts Klub aretoan; alboan dagoen Mendi Cafe Rock tabernarena da. Elkarteko gazteek bikoteka jokatu dute eta hamarrek ekin diote lehen faseari. Jarduera berezia izan da, dardoak botatzerakoan proba batzuk egin

behar izan baitituzte, betaurreko bitxiak ipini edota saltoka aritu, besteak beste. Parte hartzaileak gustura jardun dira eta irabazleak Itziar eta Edorta izan dira, Carlosek eta Lorenak osatutako bikotea garaitu baitute finalean. Txapeldunen kopak beraiek biek altxa badituzte ere, parte hartzaile guztiek eraman dituzte opariak etxera, elkarte-

ko begiraleen eta Mendi Cafe Rock establezimenduko jabe Jon Mendiaren eskutik.

Urte batzuk zeramatzaten Jalguneko kideek dardo txapelketa jokatu gabe; 2006tik 2009ra lau egin zituzten Also tabernan eta aurten ohitura berreskuratu dute. Igarotako denbora ez da nabaritu, gazteek berehala hartu baitiete neurria dardoei eta dianari.



Ongi apuntatzea zaildu zieten erronkak izan zituzten jokalariek. TXINTXARRI



Lehiakortasuna baino, laguntasuna izan zen nagusi txapelketan. TXINTXARRI

Sorginek akelarre gehiago egin nahi dituzte urtean zehar

Belaunaldi berrietako kideak askotariko ekimenak libreki proposatzera animatu dituzte, bilera ireki batean

Txintxarri

Sorgin Jaiak eragileko kideak hilaren 8an bildu ziren Antonio Mercero aretoan. Lagunartean, partaide berriei euren lan egiteko modua eta lantaldeen antolaketa azaltzeaz gain, herritar

orori egitasmoarekin bat egiteko gonbidapena ere zabaldu zuten.

Bertaratukoaren artean, askotariko adineko jendea izan zen, eta horren aurrean, taldeko beteranoak pozik agertu ziren: "Jende gazteak indarra emango

dio taldeari orain arte egindakoa birpentsatzeko, festei eta urteko ekitaldeei begira", adierazi zuen batek. Izan ere, urte osoan zehar jarraipena izan nahi dute, eta horretarako, belaunaldi berriei libreki askotariko ekimenak proposatzera animatu zituzten. Azken batean, "aktibo" izanda, herritarrek sorginen taldera gerturatzeko modurik hobereena dela uste dute. Inauteri larunbaterako (martxoak 1) esaterako, gai alternatibo bat proposatu dute: euskal ikus-entzunezkoak.



Antonio Merceron egin zuten sorginek bilera irekia. TXINTXARRI



'Indarkeriaren oi(h)artzunak' dokumentalaren zuzendarietako bat den Ander Iriarte (ezkerrean), azalpenak ematen. TXINTXARRI

Euskal Dokumentalen Zikloari ekin diote

Esteban Muruetagoiena oiartzuarraren alaba Tamara protagonista duen 'Indarkeriaren oi(h)artzunak' lanak ireki du aurtengo emanaldi sortaren kartelera. Lan horren zuzendarietako bat den Ander Iriartek xehetasunak kontatu ditu proiektzioa amaitu ostean

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Indarkeriaren oi(h)artzunak ikus-entzunezkoak hasiera eman zion Euskal Dokumentalen Zikloari hilaren 7an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Ander Iriarte eta Amaia Merino zinegileek zuzendutako zintak tortura du ardatz, eta horretarako, Esteban Muruetagoienaren alaba Tamararen testigantza ba-

liatu dira. Proiektzioa amaitzean, ikusleek tartea izan zuten Iriarteri zenbait galdera egiteko.

Dokumentalak, 1982. urtetik hasita, gaur egunerako kronika gordina plazaratzen du. Izan ere, urte hartan hil zen Esteban Muruetagoiena oiartzuarra, Guardia Zibilak bederatzit egunez atxilotu, aske utzi eta hiru egunera. Lau hamarkaden ostean,

haren familiak ez du jaso Poliziaren torturaren biktima izan delakoaren errekonozimendu ofizialik, baina Iriartek eta Merinok horrela irudikatu nahi izan dute: "Tamarak ez zaitu ezertaz konbentzitu nahi, bere mina adierazi eta onartu baizik", jakinarazi zuen Iriartek, ikus-entzunezkoaren helburuari buruz solastatzean.

Emakumearen diskurtsoa erdigunean jarrita, haren kamerari begirako lehen planoak eta Adur Larrea ilustratzailearen animazioak osatzen dute ordu-bete inguruko dokumentala. Oinarrian, zutik zurako elkar-riketa bat da. Zuzendari oiartzuarraren arabera, detaileek ez dute "axola", data batean Tamara konfunditu arren, bere errelatoa sinesgarria delako. Horregatik aukeratu dute Larrearekin lan egitea, bere estiloak oroitzapena era berezian irudikatzen duelako ez baitu gutzia den bezala erretratatzeko, baizik eta bakoitzari garrantzitsuena zaiola soilik.

Piezaren zuzendarientzako torturaren gaia ez da ezezaguna, aurretiaz landu izan baitute *Asier eta biok* (2013), *Echevarriatik Etxeberriara* (2014), *Non dago Mikel* (2020) eta *Karpeta Urdina* (2022) lanetan, hain zuzen. Lan horiek amaitzean, Iriartek aitortu du nahiko "erreta" zegoela. Hala ere, Tamararen deia jaso eta lau zapabost orduz hitz egin ostean, bere istorioa kontatu egin behar zutela konturatu zen: "Tamara harribitxia da, bere janzkerak eta hizkerak torturaren biktimen eskemak hausten dituen zerbait badutelako". Tertulian, ikusle askok ideia horrekin bat egin zuten.

Indarkeriaren oi(h)artzunak dokumentala oihartzun handia izaten ari da, eta hori dela-eta, askotariko jaialdietan erakutsi da eta publikoaren harrera "hunkigarria" izaten ari da. Hurrengo geltokia Malagako Zinemaldia izango du.

Okendo Zinema Taldekoek beste hiru emanaldi egingo dituzte hilaren 28ra arte. Alboko zatiduran dituzue horiei buruzko xehetasunak.

Zikloko hurrengo emanaldiak

Hilabete osoan zehar luzatuko da Euskal Dokumentalen Zikloaren bosgarren aldia. Hurrengo saioak hauek izango dira (bakoitzerako sarrerek 6 euro balio dute):

Hilak 14

• **Kultur etxean, 20:00etan**, film laburren eguna: *Puzzleak*, *De agua y arena*, *Zona Wao* eta *Europa* lanak emango dituzte, bata bestearen atzetik.

Hilak 21

• **Kultur etxean, 20:00etan**, Oskar Alegriak zuzendutako *Zinzindurrunkarratz* dokumentala proiektatuko dute.

Hilak 28

• **Kultur etxean, 20:00etan**, Larrait Zuazo-Zuri Goikoetxea-Ainhoa Andraka hirukoteak zuzendutako *Itoiz, udako sesioak* lana emango dute.

Antolatzaileek gogorarazi dute proiektio bakoitzaren ostean solasaldiak aurrera eramango dituztela aipatu dokumental horietako zuzendariekin. Gauzak horrela, bertaraten direnek aukera izango dute galderak egiteko.

Errespetuaz hausnartzeko antzezlanaren erakutsi dute

Gorakada Teatroak 'Moko' obraren emanaldia egin du kultur etxean; Bilintx poetaren bizitza oinarri du

Txintxarri

Enpatiaz, errespetuaz eta tolerantziaz gogoetatzeko, *Moko* antzezlanaren eskaini zuen Gorakada Teatrorak konpainiak hilaren 8an, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Obrako

protagonista beste edozein ume bezalakoa da, ezusteko batek munduaren begietarako monstruo bihurtzen duen arte; abentura batean, altuera handitik erori eta aurpegia desitxuratu egiten baitzaio. Hori dela-eta,

mutikoa bakarrik sentitzen da. Hala ere, halako batean, konturatu da hitzak hegan ikusteko, harrapatzeko eta horiekin bertsuak idazteko gai dela. Dohain magikoa du. Denboraren poderioz, umea heldu eta, herriak hainbeste maite zuen Bilintx poetan bilakatzen da.

Hurrengo antzerki emanaldia La Dramatica Errante taldeak emango du, hilaren 22an, 20:00etan, kultur etxeko auditorioan: *Ni funeral, ni flores, ni cenizas, ni tartán*.



'Moko' antzezlanaren emanaldiko eszenetako bat. TXINTXARRI



Aurreneko alditik bete izan dute Xirimiri elkarteak Irakurle Txokoko lagunek. TXINTXARRI

Bertsolaritza eta literatura dastatzeaz ez dira oraindik ase

Bi diziplina artistiko horiek uztartzen dituen ekimena hilaren 22an aurrera eramango du Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak, Xirimiri elkarteak, 14:00etatik aurrera; hamargarren aldia izango da. Orain arteko saioak errepasatu ditu TXINTXARRI-k

Txintxarri

Lasarte-Oriako Irakurle Txoko lagunek duela hamar urte antolatu zuten aurreneko bertsoa eta literatura uztartuko zituen saioa, otordu eta guzti. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Igor Elortza aritu ziren orduko horretan, Harkaitz Cano idazleak jarritako gaiei neurria eta errima jartzen. *Denboraren makina* izan zen estreinako hitzordurako hautatu zuten gaia. Traman-kulu horretan sartu eta hamar-kada horretako bertso saio literarioak errepasatu ditu TXINTXARRI-k, urtez urte.

2015

Irakurle txokoa herrian ezagunago egin eta ekimena diruz laguntzeko asmoz, talde horretako kideek estreinakoz aurrera eramane zuten bertso afari lite-

rario bat, Xirimiri elkarteak. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Igor Elortza aritu ziren bertsoan; Harkaitz Cano idazleak jarri zizkien gaiak eta *Denboraren makina* izan zen saioaren ardatza. Benetan arrakastatsua izan zen lehen aldi hori, aurreikusitako 70 sarrerak saldua.

2016

Aurreneko bertso afariak izandako erantzunak hauspotuta, bigarrena aurrera eramane zuten irakurle txokokoek, aldaketa batzuekin. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga (aurtengoan berak jarriko ditu gaiak) aritu ziren bertsoan eta taldearen orduko dinamizatzaile zen Danele Sarriugarte idazleak jarri zizkien gaiak, ikasurte horretan landu zituzten liburuetan oinarrituta: lan ho-

rietako zenbait pertsonaien paperean jarri behar izan zuten bertsolariek.

2017

Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio aritu ziren kantuan hirugarren aldiak, Eider Rodriguez idazleak jarritako gaien bueltan. Xirimirira bertaratu zirenek jan eta edan zutenaz gain, menuaren osagai nagusia umorea izan zen; etenik gabekoak izan ziren barre algarak eta ikus-entzuleen txalo zaparradak.



2018

Bertsoen eta literaturaren esentzien poteak ireki eta fragantziak atera zituzten kanpora: geratu ziren herritarren jantzetan eta baita buruetan nahiz bihotzetan ere. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal aritu ziren bertsoan; gaiak jartzen, berriz, Lander Garro idazlea aritu zen.

2019

Beste mundu bateko bertso afari literarioa izan zen hurrengo urtekoa, Oier Guillan gai jartzailea medium baten paperean sartu eta hankaz gora jarri baitzituen bertsolariek (Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio) nahiz ikus-entzuleak.



2020

"Errezitaldi bertsolatua edo bertso saio estrofatu". Hala definitu zuen Iñigo Astiz idazleak gaiak jartzeko hitza lehenengoz hartzean gertatuko zena. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio aritu ziren ordukoan ere bertsoan, Xirimiri lepo bete zuten ehun lagunuen aurrean.



2022

Pandemiak eragindako hutsu-nearen ostean, otorduari izan ezik, gainerakoan betikoari eutsi zioten: Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariek Miren Agur Meabe idazlearen gaiekin jardun ziren. Historia, Antropologia eta Mitologia bezalako jakintza alorretan ardaztu zuten saioa; ikasgai oro har beldurgarriak izanagatik, herri baten ezinbesteko osagaiak dira hiruak ere.

2023

Gau edo egun, gozamen iturri izan ohi da beti bertso saio literarioa. Galde diezaietela 2023ko otsailaren 11n Xirimirin bildu zirenei, ziur oraindik oroitzen direla. Iban Urizar musikariak lagunduta eta meza berezi bat gidatu ondoren, Uxue Alberdik bertsoarako gaiak jarri zizkien Ane Labakari eta Alaia Martini. Idazleen hitza irakurleen fede bilakatu zuten orduko horretan.



2024

Negu amaieran loratzen dira mimosak eta garai horretan antolatu ohi du irakurle txokoak bertso saio literarioa. Batzuetan bazkaria, beste batzuetan afaria; beti, hitzordu gustagarria. Jada klasiko bihurtu den hirukotea jardun zen bertsoan: Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio. Aintzane Usandizaga herritarrek (berak dinamizatzen du irakurleen taldea gaur egun) debuta egin zuen gaiak jartzen eta emaitza pasartez, bertsoz eta umorez betetako bi orduko egonaldia izan zen.



2025

Hilaren 22an aurrera eramango dute hamargarren bertso saio literarioa, ohi bezala, Xirimiri elkarteak, 14:00etatik aurrera. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariek lanean jarriko ditu gai jartzaile gisa jardungo den Unai Iturriagak; aurretik, bapo bazkalduko dute. Antolatzaileek jakinarazi dute salgai zeuden sarrera guztiak agortuta daudela. Bertsolaritza eta literatura dastatzeaz ez dira oraindik ase.

Beltzek, ezin garaipena lortu Atsobakarren

14 urtez azpiko zein Euskal Ligako II. mailako taldeek Atsobakar kirol guneko zelaietan jokatu dute estreinakoz. Arrasate eta Iruña taldeak gailendu dira neurketetan. Euskal Ligako I. mailako taldeak bakarrik lortu du garaipena ligako jardunaldian

Txintxarri

Errugbiko lehen neurketak jokatuta ziren hilaren 8an Atsobakar kirol gunean. Beltzak RTko 14 urtez azpiko zein Euskal Ligako II. mailako taldeak nor baino nor aritu ziren kirol instalazio berrian. Emaizak ez ziren etxeko taldeen aldekoak izan.

Errugbi jardunaldiari hasiera emateko 14 urtez azpiko gazte txoen lehia izan zen. Arrasateko taldearen aurka ederki borrokatu zuten arren, aurkaria nagusi izan zen eta 0-35 galdu zuten.

Euskal Ligako Gipuzkoa Sortzen ere ez zuen zorte hobirik izan II. mailako partidaren. Iruña RTren aurka neurtu zituzten indarrak. Lehen zati berdindu



Euskal Ligako neurketa. TXINTXARRI

baten ostean, hiruna iritsi ziren atsedendaldira, iruindarrek gogotsu hasi zuten bigarren zatia; zigor ostiko, bi entsegu eta gauzatze batekin, aldea ireki zuten.

Etxekoek ez zuten amore eman eta bi entsegu eta gauzatze batekin erantzun zuten aldea gutxituaz, 15-18.

Bi taldeak ederki jardun ziren garaipenaren bila. Tamalez Iruñeak lortu zuen beltzen defentsa apurto eta marrara iristea eta neurketa 15-23 amaitu zen.

Gainerako Beltzak RTko taldeetatik bakarrik lortu zuen garaipena, Euskal Ligako I. taldeak.

Gipuzkoa Sortzenek 3-69 garaitu zuen Urgozo Zornotza rugby taldea. 18 urtez azpiko Gesalaga okelari Zarautz RTk ezin izan zuen Hernaniren aurka, 23-0 eta 16 urtez azpikoak ere 80-24 galdu zuen Durangon.

Munduko txapelketarako txartela

Alex Saleta herritarra balentria ederra lortu du errugbiko Espainiako Selektzioarekin, 2027an Australian jokatuko den Munduko Koparako sailkapena. Eta 27 urteren ostean, Espainiako selektzioa nazioarteko txapelketara itzuliko da.

Hilaren 8an, Suitzako selektzioaren aurka neurtu zituzten lehoiek indarrak Yverdon-les-Bainsen (Suitza).

Nagusitasunez jokatu zuten Espainiako jokalariek eta 13-43 irabazi zuten neurketa. Saleta herritarra bigarren zatian atera zen zelaira eta bere harritxo jarri zuen suitzarrek eusten.

Herritarra pozarren dago lortutako sailkapenarekin eta Beltzak RTko kideei honako esker mezua helarazi die: "Lasarte-Orian errugbia sustatzeko egin duzuen lanarengatik eskerrak eman behar dizkizuet. Zuengatik ez balitz gaur egun errugbian jokatzen dugun jokalarietako askok ez genuke jakingo zein ederra den joko hau".

Oharrean taldeko kideen lana goraiptzeaz gain, euren gaitasun bere ametsa lortu duela nabarmendu du: "Egiten zenuten lan guztia dut gogoan, hala nola, entrenatzaileek, hirugarren denbora prestatzen zuten kideak edo bestelako lanak egiten zituztenak. Hein handi batean zuei esker, nire ametsetako bat lortu dut, Munduko txapelketako sailkapena. Une oro izan zaituzten gogoan, gure artean ez daudenak ere. Zuen lan, denbora eta ardura guztiak aukera hau eman dit eta eskertuta nago".



Alex Saleta, herritarra. FERUGBY

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Goierri Gorri FK - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Iqartza, Beasainen.
GORENGO MAILA
Mariño CD - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Ugalde-Ventas, Irunen.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Euskalduna A. SD B Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunea.
Usurbil FT B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 18:40. Harane, Usurbilen.
OJM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Urola KE Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, IGOERA
Mondragon CF B - Texas Lasartearra CF B Igandea. 12:00. Moiategi, Arrasaten.
J. I. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Segura Aizkorri FT B Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Ostadar SKT C - Zarautz KE D Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
OKM, JAITSIERA
Beasain SD - Ostadar SKT Larunbata. 11:30. Iqartza, Beasainen.
K. I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT (neskak) - Añorga KKE B Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Zarautz KE C Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT - Billabona KE B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
K. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Sporting de Herrera - Ostadar SKT C Igandea. 10:15. Herrera, Donostian.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Coinbroker Larunbata. 15:30. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Eguzki ISU Leñoak - Irun Futsal Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bodegas Ayesa - Goierri KE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxua - Mondrate Larunbata. 13:15. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
II. MAILA
Drunkat Hoops - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Aitza kirol., Donostian.
III. MAILA
Modelos Modelberri - Ostadar SKT Igandea. 13:00. Olaizaga kir., Elgoibarren.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Bera Bera Rikardo Taberna Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean.

Ostadar Beltza - CDB Erroibide Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Axa Amurrio - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Amurrio, Araban.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Eskoriatza KE Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
KADETE PARTAIDETZA
ZAST Noir - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. La Salle ik., Zarautzen.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Galdakao BT Elixalde Larunbata. 17:30. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ipar Titanak - Ostadar SKT Larunbata. 15:00. Bidebieta kirol., Donostian.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Aldapeta Maria B Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Arizmendi 1 - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Ibarra kirol., Aretxabaletan.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
Intza - Intxurre Igandea. 11:00 (1. partida). Michelin pil.
UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Beotibar 1 - Intza Larunbata. 16:00 (1. partida). Beotibar, Tolosan.

TRINKETE, NAGUSIEN II. MAILA
Intza (Solano) - Azk. Oteiza Larunbata. 15:30 (1. partida). Ametsa tr., Iruan.
ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Intza - Zazpi Iturri 2 Ostirala. 18:15 (1. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Arkirun 2 Ostirala. 18:15 (2. partida). Loidibarren pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Durango Hirumet RT Larunbata. 16:00. Kote Olaizola mini., Donostian.
18 URTEZ AZPIKOA
Uni. Bilbao - Ges. Okelari Zarautz Beltzak RT Larunbata. 15:00. Bilbo, Bizkaia.
16 URTEZ AZPIKOA
Ges. Okelari Zarautz Beltzak RT - Hiruherri RT Larunbata. 13:00. Atsobakar kirol gunea.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA
Beltzak Errugbi eskolako gazteek topaketa dute. Igandea. 10:00. Ordizian.
GIMNASTIKA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek eskolarteko mailako lehen fasea izango dute. Larunbata eta igandea. Azpeitiako kiroldegian.
ATLETISMOA
PROBA LIBREAK
Herriko atletek eta Ostadar SKTko

eskolarteko kideek proba libreak izango dituzte. Larunbata eta igandea. Antonio Elortza Bel./Kote Olaizola mini., Donostian.
EUSKADIKO TXAPELKETA
Herriko atletak jaurtiketa luzeetako Euskadiko txapelketan izango dira lehia. Larunbata. 14:00. Durango, Bizkaian.
JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko infantil mailako judoek bigarren fasea lehiatuko dute. Larunbata. 15:00. Urmietan.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebinek Ligako jardunaldia izango dute. Larunbata. 17:45. Maialen Chourraut kirol.
BENJAMIN JAIALDIA
Buruntzaldea IKTKo benjaminen hirugarren saioz gozatuko dute. Larunbata. 15:30. Maialen Chourraut kirol.
XAKEA
II. MAILA
Gros J - Taula A Larunbata. 16:00. Karmelo Balda pil., Donostian.
III. MAILA
Taula B - Gros M Larunbata. 16:00. Blas de Lezo lokalean.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako jardunaldia jokatuko da. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.

Herriko atletak, ederki adin txikiko lehietan

Hilaren 8an eta 9an, Adin Txikiko Euskadiko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa eta 18 zein 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa lehiatu dira. Lasarte-Oriako kirolariek proba ezberdinetan parte hartu dute eta 20 urtez azpiko lehiari podiumean izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak adin txikiko bi lehiaketari egin zieten aurre hilaren 8an eta 9an, Adin txikiko Euskadiko jaurtiketa luzeen txapelketa eta 18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa. Herriko ordezkariak 20 urtez azpiko mailan lehen postuetan sailkatu ziren bietan.

Adin txikiko Euskadiko jaurtiketa luzeetako txapelketa lehiatu zuten Ostadar SKTko Hodei Garcia, Aiala Ramos eta Helene Martinek. Hirurek xabalina jaurtiketa proban eta lehen biak podiumeko bigarren mailara igo ziren.

Horrez gain, Garciak eta Martinek euren markak ondu zituzten. Garciaren kasuan, 42,95 metroko jaurtiketarekin marka pertsonal berria ezarri zuen eta Martinek denboraldiko marka hobetu zuen, 26,22 metro.

Gipuzkoakoan, fin

Herriko atleta ugari ere 18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txa-



Alkorta, Almagro eta Aiala, txapelketa ezberdinetan lehiari. OSTADAR ATLETISMOA

pelketa lehiatu zuten eta horretan ere fin ibili ziren Ostadar SKTko 20 urtez azpiko lehiariak.

Urrezko zein brontzeko dominak jantzi zituzten hainbat atletek. Ikus koadroa.

Eta horien artean, nabarmenezkoa da Iraia Alkorta abiadurara proban egindako marka, 7,89; Espainiako gutxienez gertu

geratu zen Lasarte-Oriako atleta gaztea.

Proba librea

Gipuzkoako txapelketa izateaz gain, Ostadar SKTko atleta gazteek, batez ere, 16 urtez azpikoek hilaren 22an eta martxoaren 1ean izango diren Adin txikiko Euskadiko txapelketa zein euren mailako Gipuzkoako txapelketa

18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa

- 20 urtez azpikoa
 - Oinatz Almagro:
 - Luzera jauzia - 1º
 - Jauzi hirukoitza - 1º
 - Aitor Eizaguirre:
 - Pisia - 1º
 - June Garcia:
 - Luzera jauzia - 3º
 - Iraia Alkorta:
 - 60 m. liso - 3º

Adin Txikiko Euskadiko jaurtiketa luzeen txapelketa

- 20 urtez azpikoa:
 - Hodei Garcia:
 - Xabalina jaurtiketa - 2º
 - Aiala Ramos:
 - Xabalina jaurtiketa - 2º

prestatzeko edo markak eskuratzeko baliagarri izan zuten.

Horien artean, Ostadar SKTko Eider Redondo (60 m. lasterketa), Erin eta June Iruretagoyena (300 m. lasterketa), Irati Gallego (300 m. lasterketa) zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondok (60 m. lasterketa) denboraldiko marka ondu zuten.

Hilaren 15ean ere txapelketarako baliagarriak dituzten markak lortzeko proba libreak izango dituzte herritarrek, baita Ostadar SKTko eskolarteko mailako kideek ere.



J. PRESA

Uliako Gimnastikan ere herritarrek

Uliako Gimnastika lasterketa lehiatu zen hilaren 9an, Donostiako Gros auzoan. 5 kilometroko eta 10 kilometroko proba herrikoiak zein 40 minutu azpiko kirolarien lehia izan zen eta guztietan izan zen herritarrik.

Proba motzean herritarren artean iristen lehena Julen Goenaga izan zen; 16,47 marka egin zuen helmugan.

10 kilometroko herrikoan, besteak beste, Mari Carmen Olaso herritarra izan zen (45,37).

Eta 40 minutu azpiko kirolarien lasterketan ere hainbat ordezkari izan ziren eta Ibai Izagirre izan zen lehena helmugara iristen (32,06). Irudian agertzen den Jon Presak ere parte hartu zuen maila horretan.

Boleibol saileko taldeek ez dute egun ona izan etxean

Ostadar SKTko Euskal Ligako taldeak igoserako kanporaketa jokatu du hilaren 15ean, etxean

Txintxarri

Boleiboleko Gipuzkoako Ligako neurketek gozatu ahal izan zuten zaletuek, hilaren 8an, Lasarte-Orian. Emaizak, ordea, ez ziren etxeko taldeen aldeko izan.

Senior mailako neurketan, esate baterako, Ostadarrek 1-3 galdu zuen Toloboleiren aurka.

Tolosako taldeak lehen bi jokoa irabazi (13-25 eta 15-25) eta etxeko taldeak alde murriztu zuen hirugarren seta eskuratuaz (25-11). Tamalez laugarren zatian Toloboleiek 12-25 egin eta garaipena erdietsi zuen.

Kadete mailako A taldeak ere ezin izan zuten Hernani KE 3 garaitu (0-3) eta infantilek Aiztondo NBKT 1 taldearen aurka ederki borrokatu arren, azken jokoa galdu zuten partida (2-3).

Gauza bera gertatu zitzaion Kadete mailako B taldeak Hondarribian. Harresi 3 taldeak azken jokoa eraman zuen garaipena (3-2).

Irunen, berriz, bestelakoa izan zen jubenilen jarduna; Ostadarreko ordezkariak Mayumiren aurkako neurketari itzulita eman zioten. Lehen jokoa etxekoek



Toloboleiren aurkako erasoetako baten irudia. TXINTXARRI

25-16 irabazi ostean, urdin-beltzek erasoan eta defentsan ederki lan eginez hurrengo hiru zatiak (16-25, 18-25 eta 13-25) bereganatu zituzten.

Igoera, jokoa

Horrez gain, Euskal Ligako II. mailako taldeak ezin izan zion

lehen faseari amaiera biribila eman; hilaren 8an, D'Elhuyar Logroño taldeak 3-0 garaitu zuen Asier Acuriolaren taldea Logroñon (Errioxa).

Ederki borrokatu arren, aurkariak Ostadarren hutsak baliatu zituen hiru jokotan gailentzeko: 25-20, 25-13 eta 25-22.

Hala ere, aurreko astean ederki gaudituzkoen talde urdin-beltzak Durango (3-0) eta matematikoki bere multzoko lehen postua eskuratu zuen.

Igoera fasea hilaren 15ean hasiko da eta Maialen Chourraut kiroldegian neurketa garrantzitsua jokatu du Ostadar SKTko ordezkariak.

Fase horretan bi multzoetako lehen lau taldeek parte hartuko dute eta finalera iristeko kanporaketa ezberdinak gaudituzko beharko dituzte parte hartzaileek.

Gauzak horrela, Asier Acuriolaren taldeak A multzoko laugarren sailkatua izango du aurrez aurre final laurdenetan; aurkaria Galdakao BT taldeko Elizalde ordezkaria izango da. Hitzordua hilaren 15ean, 17:30ean, izango da Maialen Chourraut kiroldegian.

Herriko igerilariak, bikain hitzordu bikoitzean

Lasarte-Oriako igerilariak junior eta absolutu mailako Euskal Herriko txapelketan zein III. Abiadura Sarian lehiatu dira. Lehen postuetan sailkatu eta marka ugari ondu dituzte Iruñean (Nafarroa) eta Zarautzen, hurrenez hurren, jokatu diren probetan

Txintxarri

Lasarte-Oriako igerilariak Iruñean (Nafarroa) eta Zarautzen izan ziren lehian hilaren 8an eta 9an.

Euskal Herriko absolutu zein junior mailako txapelketa jokatu zen Iruñeko Amaya kiroldegian. Buruntzaldea IKTko zazpi igerilari eta Bidasoa XXIeko Iñaki Garcia herritarra izan ziren lehian.

Markak ondu zituzten eta lehen hamarren artean izan ziren herriko ordezkariak. Garciak eskuratu zituen emaitzarik onenak junior mailan. Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria ere podiumetik gertu izan zen 50 m. libre proban. Ikus beheko koadroa.

Horrez gain, erreleboak ere lehiatu zituzten herriko ordezkariak. Buruntzaldea IKTko kideak 4x100 m. eta 4x200m. libreetan egin zuten igeri eta lan ederra egin zuten proba luzean. Garcia, aldiz, lehen postuetan izan zen 4x50 m. eta 4x100 m. probetan.

Buruntzaldea IKTko kideentzat erronka handia izan zen 50 metroko igerilekuari aurre egitea, baina "sekulako etekina" atera ziotela onartu dute igeriketa taldeko prestatzaileek.



Euskal Herrikoan parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Domina ugari

Bestalde, Buruntzaldea IKTko beste zazpi igerilari III. Abiadura Saria jokatu zuten Zarautzen, Aritzatalde igerilekuan.

Guztiak bakarkako bi probatan egin zuten igeri. Aukeratu zuten estiloko 50 m. edo 100 m. proba eta denentzat derrigorrezkoa zen lau estiloetako 100 metrokoa. Horretaz gain, estilo libreko 4x50 m. erreleboan ere parte hartu zuten taldeko neskek.

Igeriketa taldeko ordezkariak txapelketa ona osatu zuten, eta markarik onenak lortu zituzten proba askotan. Ikus beheko koadroa.

Lehiaketa horretan parte hartu zuten Amaieur Iparragirrek eta Itxaso Iparragirrek ederki baliatu zuten proba hitzordu garrantzitsu bat prestatzeko, infantil mailako Euskal Herriko Txapelketa. Lehiaketa Irungo Azken Portu kiroldegian jokatu da hilaren 22an eta 23an.

Igerilekua, itxita

Bien bitartean, bi lehiaketari aurre egin beharko diete taldeko txikiek hilaren 15ean Maialen Chourraut kiroldegian. Eta beraz, igerilekua itxi egingo dute 15:30etik 20:00etara.



Nahia Goenaga (ezker) eta Ane Villagarcia, eskuratutako dominekin. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Nahia Goenagak bi zilarrezko domina jantzi ditu Euskadirekin

Arraunlari herritarra Distantzia Luzeko Espainiako txapelketan lehiatu da bikoteka zein taldeka

Txintxarri

Distantzia luzeko arraunlariek Castrelo de Miñon (Ourense) hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 8an eta 9an. Lehen egunean Espainiako distantzia luzeko txapelketa lehiatu zen eta egun bat geroago, Erkidegoen arteko lehia. Bietan Lasarte-Oriako ordezkaria izan zen lehian, Nahia Goenaga herritarra. Leheanean Arraun Lagunak taldeko ordezkari modura parte hartu zuen, eta bigarrenegun, Euskadiko selekzioko kide izan zen.

Lehen egunean, Arraun Lagunakeko kide Ane Villagarcia-

kin 2-JF mailako proba borrokatu zuen Goenagak. 5.500 metroko ibilbidea 23.06,21 egin zuen bikoak eta hamabigarren postuan sailkatu ziren.

Bigarren egunean, Euskadiko selekzioarekin bi ontzitan egin zuen arraun herriko kirolari gazteak, 4xJF eta 8+JF eta bietan podiumera igo zen zilarrezko domina jasotzera.

Lehia handia izan zen 1.000 metroko ibilbidean eta batez ere, 8+ lasterketan. Garaile izan zen Andaluziak segundo bateko aldea bakarrik atera zion Euskadiko ontziari.

Bachimañarako irteeran izena emateko azken egunak

LOTMEk neguko bi irteera antolatu ditu. Martxoan, eskiaz gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) kideek bi irteera antolatu dituzte Pirinioetara, otsail eta martxoan.

Hil honetan Bachimañako Iboien (Huesca) ingurura egingo dute bidaia; LOTMEk hilaren 17an itxiko du inskribatzeko aukera.

Bertan neguko goi-mendian segurtasunez mugitzeko ikastaroa egingo dute monitore batek lagunduta, besteak beste, neguan mendi-irteerak nola planifikatu, ibilbidea nola planifikatu, aukeratutako

ibilbidearen arabera motxilan zer eraman, zirkulazio segurua eta neguko mendiko berezko material teknikoaren erabilera ikasiko dute parte hartzen dutenek.

Martxoan, aldiz, Ibarako Bidetxur Klubaren laguntzarekin, eski irteera antolatu dute Canfranc Haranera (Huesca). Izena emate dutenek martxoaren 8an eta 9an mendiko eskia, eski alpinoa edo iraupen eskiaz gozatu ahaliko dute. Inskripzioa martxoan dute elkartearen webgunean eta bertan eskuratu dezakete informazio gehiago ere.

Txapelketetako emaitzak eta markak

Junior eta absolutu mailako Euskal Herriko txapelketa

• Iñaki Garcia (Bidasoa XXI):

- 50 m. libre - 3º junior
- 50 m. bizkar - 3º junior
- 100 m. bizkar - 4º junior
- 4x50 m. libre - 2º
- 4x100 m. libre - 1º

• Garazi Etxeberria:

- 50 m. libre - 4º absolutu
- 200 m. lau estilo - 5º absolutu
- 50 m. bular - 7º absolutu - Marka ondu
- 50 m. bizkar - 8º absolutu - Marka ondu

• Iker Gorostegui:

- 50 m. tximeleta - Marka ondu
- 100 m. tximeleta - Marka ondu
- 200 m. libre - 7º absolutu - Marka ondu
- Miren Sarobe:
- 50 m. libre - Marka ondu
- 100 m. libre - 8º junior
- 200 m. lau estilo - 7º junior

• Oihan Matute:

- 200 m. bular - 8º junior - Marka ondu

• Mayi Gorostegui:

- 50 m. bizkar - Marka ondu
- 100 m. bizkar - Marka ondu
- 100 m. bizkar - Marka ondu

• Ibon Elola:

- 100 m. bizkar - Marka ondu
- 200 m. bizkar - Marka ondu
- 200 m. libre - Marka ondu
- Kimetz de La Cruz:
- 100 m. bizkar - Marka ondu
- 200 m. bizkar - Marka ondu

III. Abiadura saria

• Amaieur Iparragirre:

- 50 m. tximeleta - 2º
- 100 m. lau estilo - 2º

• Ane Meyer:

- 100 m. libre - 3º

• Nora Miguelez:

- 50 m. tximeleta - 3º



Kadete mailako taldeak (ezkerrean) eta bakarkako lana egin zuten gimnastak. LOKE GIMNASTIKA

LOKEko gimnastek, lan ona lehen fasean

Amateur txapelketari hasiera eman diote LOKEko gimnastek. Ederki jardun dira herriko ordezkariak eta Maitane Sarmiento eta Mirian Prieto lehen postuetan izan dira. Eskolarteko gimnastek, aldiz, lehen faseari egingo diote aurre hilaren 15ean eta 16an

Txintzarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak txapelketa denboraldia hasi dute. Amateur txapelketako lehen fasea lehiatu zuten, Bergaran. Lasarte-Oriako kirol elkarteko kideek bakarka zein taldeka eta ederki moldatu ziren.

Bakarka lan egin zuten kideek mailaren arabera pilota edo uztaiarekin aurkeztu zuten euren dantza eta lehen postuetan izan ziren senior eta jubeniil A mailan. Ikus koadroa.

Taldeakakoak, aldiz, mailaren arabera pilota eta uztaiekin edo uztaia eta mazoekin lan egin

zuten. Lasarte-Oriako gimnastak ederki moldatu ziren jubeniil A mailan eta kadete C mailan.

LOKEko kideak pozarren daude lortutako postuekin eta bigarren fasea prestatzen hasi dira dagoeneko. Hitzordua martxoaren 16an izango da Ibarran eta maiatzeko finalerako txartelak

izango dituzte jokoan LOKEko kideek.

Eskolartekoa, ate joka

Eta amateurren ostean, eskolarteko lehiaketa dator. Hilaren 15ean eta 16an, Azpeitian, LOKEko infantil eta alebin mailako gimnastek hilabete hauetan

guztietan ikasitakoa erakutsiko dute.

Lehen egunean alebin mailako kirolariak jardungo dira Azpeitiko kiroldegiko tapizean eta hurrengo egunean, infantilen txanda izango da; bakarka edo bikoteka eta taldean lehiatuko dira LOKEko kideak.

LOKEko judokak junior zein infantil podiumean izan dira

Euskadiko txapelketan zein infantil mailako lehen fasean emaitza ederrak lortu dituzte LOKEko kideek

Txintzarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) judoek hitzordu ezberdinak izan dituzte azken astetan. Infantilek Gipuzkoako txapelketarako sailkapen fasea hasi dute; juniorrek Euskadiko txapelketari aurre egin diote eta benjaminak ederki pasa dute euren mailako topaketan.

Junior mailako Euskadiko txapelketan izan dira lehian LOKEko ordezkariak, hilaren 8an. Euskadiko judokak Urnietako kiroldegian batu ziren eta Lasarte-Oriako taldeko Suhari Aristegi eta Francis Mihai ere bertan izan ziren.

90 kilo azpiko mailan, Aristegik ederki borrokatuz lehen postua eskuratu zuen.

Garaipenari esker, hilaren 22an Iruñean (Nafarroa) jokatuko den Espainiako Judo Txapelketako Iparraldeko Sektoreko Faserako sailkapena ere lortu du LOKEko judokak.

Mihai, aldiz, ezin izan zen 60 kilo azpiko mailan dominen borrokarira iritsi.

Infantilak, bikain

Ez dira horiek judo saileko ordezkariak eskuratu dituzten posteko emaitza bakarrak izan. Hilaren 1ean, infantil mailako



Aristegi (ezkerrean), podiumeko gorenean eta infantilak (eskuinean). EUSKAL JUDO FED./LOKE JUDO

Gipuzkoak txapelketako lehen fasea lehiatu zen Urnietako kiroldegiko tatamian eta taldeko txikiek lorpen ederrekin eman zioten hasiera lehiaketari.

Borrokan ederki moldatzen direla erakutsi zuten LOKEko judoka gazteek eta lehen postuetan sailkatu ziren pisu ez-

berdinetan. Ikus ondoko koadroa.

Bigarren fasea hilaren 15ean jokatuko da Urnietan infantil mailako kirolariak. Euren balioa erakutsi ahalko dute LOKEko judoka gazteek eta Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela izango dute jokoan.

Emaitzak

Infantil Maila 1. Fasea

- Marco Irso - 1º
- Sofia Pozo - 2º
- Ariana Mendoza - 2º
- Ariane Luis - 3º
- Ainitze Tabuzi - 3º
- Cristel Vallejo - 3º
- Alejandro Arevalillo - 3º
- Ivan Barrantes - 5º

Euskadiko txapelketa junior maila

- Suhari Aristegi - 1º

Judoken azken hitzordua hilaren 9an izan zen. LOKEko benjaminak beste herrietako judoekin batu ziren Hernaniko kiroldegian eta ederki gozatu zuten hitzorduan.

Amateur txapelketa emaitzak

• Bakarkakoak/bikoteak

Master maila - Paula Martinez - 7º

Senior A maila - Mirian Prieto - 3º

Jubeniil A maila

- Saioa Boyero - 4º

- Maitane Sarmiento - 1º

• Taldeak

Jubeniil A - LOKE - 4º

Kadete B - LOKE - 11º

Kadete C - LOKE - 4º

* Beltzez podiumeko postuak

Eskolarteko txapelketa ordezkariak

• Bakarkakoak/bikoteak

Infantil A maila

- Oihane Portuburu eta Laia Suberbiola

- Aiala Jimenez

Alebin A - Ariane Rodriguez

• Taldeak

Infantil B

- LOKE P1

- LOKE P2

Infantil C - LOKE

Alebin B - Landaberri

Alebin C

- Landaberri P1

- Landaberri G


KOMIKIA

EZKERRA

ETA

ESKUBIA

(POLITIKAZ ARI NAIZ)



ZORION AGURRAK



Enara
Zorionak sorgina!
Txokomarrubizko
muhu pila bat zure
urtebetzean,
etxekoan partetik.



Alba
Zorionak Alba! 5
muhu erraldoi
aitatxo, amatxo eta
Noaren partetik.
Asko maite zaitugu



Oihana
Zorionak sorgina 9.
urtebetzean, aita,
ama eta Lorearen
partez. Asko maite
zaitugu!!!

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	DE MIGUEL
LARUNBATA, 15	GIL
IGANDEA, 16	GIL
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 18	LASA
ASTEAZKENA, 19	GIL
OSTEGUNA, 20	ACHA-ORBEA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00
Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behe,
Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cfgipuzkoa.com
webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUNA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZTA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Trastelekua saltzen dut, 20 m²., sotoa da, Sasoetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartmentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartmentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA
Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Baxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak

emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karretarako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c.-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea.

Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-ekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-ese-kidura eta marboko estalkiak. Dauxkadan serieko gauza guztiak motorrarekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.1 saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Madal Zaldúa eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdaleta, Nikola
Iraola, Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola eta
Iñigo Ibarburu.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Erakusketa

Itsaspeko zinema zikloaren baitan, nazioarteko argazkilari ospetsuenetako batzuek ateratako argazkiekin erakusketa ondu eta ikusgai jarri dute, hilaren 27ra arte. Sarrera doakoa da.

Kultur etxeko kafetegia, 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko bigarren emanaldia egingo dute, aurtengo berrikuntza dena: film laburren eguna. Lau lan proiektatuko dituzte bata bestearen atzetik: *Puzzleak, De agua y arena, Zona Wao* eta *Europa*. Sarrerek 6 euro balio dute. Amaitzean, argiak piztu eta aipatu ikus-entzunezko horien zuzendariekin solasalditxo egingo dute Okendo Zinema Taldeko kideek.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrei zuzendutako *Los exploradores* filma emango dute. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduei zuzendutako *Heretic* filma emango dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Zinema

Itsaspeko zinema zikloaren barruko bigarren emanaldia egingo dute: zenbait dokumental eta film labur ikusi ahalko dituzte bertaraten direnek. Sarrera doakoa da.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Osasungintza publikoaren aldeko LOOPA plataformak bilera bat eskatuko die osasun zentroko



LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko berrikuntza nabarmenena den film laburren eguna egingo dute: *Puzzleak, De agua y arena, Zona Wao* eta *Europa* lanak emango dituzte, bata bestearen atzetik. Sarrerek 6 euro balio dute.

Gaur, hilak 14, kultur etxean, 20:00etatik aurrera.

zuzendaritzako kideei; gutun bat eramango dute eraikin horretara. Ekintza hori babesteko, elkarretaratze bat egingo dute. *Okendo plaza, 11:30ean hasita.*

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko hirugarren emanaldia aurrera eramango dute: Oskar Alegriak zuzendutako *Zinzindurrunkarratz* filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. Amaitzean, argiak piztu eta aipatu ikus-entzunezko horren zuzendariarekin solasalditxo egingo dute Okendo Zinema Taldeko kideek. Ikus-entzuleek ere parte hartu ahalko dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Bilketa

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak hilaren 25eko afari solidarioak prestatzeko elikagaiak bilduko ditu, eta baita neguko jantziak ere. *Okendo plaza, 11:00etatik 13:00etara.*

LASARTE-ORIA Bazkaria

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak hamargarrenez aurrera eramango

du bertsoari eta literatura uztartzen dituen jarduera, bertso bazkari literarioa. Unai Elorriagak jarritako gaien bueltan abestuko dute Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak. Horren aurretik, bapo bazkalduko dute bertaraten direnek. Antolatzaileek jakinarazi dute salgai jarritako sarrera guztiak agortuta daudela. *Xirimiri elkarte, 14:00etan.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

La Dramatica Errante konpaniak *Ni funeral, ni flores, ni cenizas, ni tartán* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek. *Kultur etxea, 20:00etan.*

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrei zuzendutako *Finnick, un monstruo en casa casa* filma emango dute. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduei zuzendutako *Babygirl* filma emango dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA



LABURPENA

'Heretic'

Zuzendaria: Scott Beck, Bryan Woods. **Gidoia:** Scott Beck, Bryan Woods. **Argazkia:** Chung Chung-hoon. **Ekoizleak:** Beck-Woods, Catchlight Studios, Shiny Penny Productions. **Herrialdea:** AEBak (2024). **Iraupena:** 110 minutu. **Generoa:** Beldurrezkoa. **Aktoreak:** Hugh Grant, Sophie Thatcher, Chloe East, Elle McKinnon.

Ate joka aritzearen arriskua

Itxuraz ezin adeitsuagoa den Reed jaunaren (Hugh Grant) etxera iritsiko dira bi misiolari gazte (Sophie Thatcher, Chloe East), arratsalde euritsu batean, auzoko bizilagun ugariarekin bezala, adineko pertsona horrekin Bibliaz hitz egiteko. Hasieran atsegina zirudien gizona, ordea, ilun eta maltzurra bilakatuko da hiruen arteko elkarrizketak aurrera egin ahala, eta bi gazteek euren fedea erakutsi beharko dute etxeko jabearekin katuaren

eta saguaren jokora aritu bitartean.

Scott Beck eta Bryan Woods-ek zuzendutako beldurrezko filma da *Heretic*, batez ere filosofia eta teologia lantzen dituen, pop kulturari buruzko zertzelada batzuekin. Protagonista nagusiaren rola Hugh Grant aktore esperientziadunak antzestu du eta laudorio ugari jaso ditu, baita Urrezko Globoetarako izendapen bat ere.

ASTELEHENA 24

LASARTE-ORIA Zinema

Itsaspeko zinema zikloaren barruko hirugarren eta azken emanaldia egingo dute: zenbait dokumental eta film labur ikusi ahalko dituzte bertaraten direnek. Sartzeagatik ez dute ordaindu beharko. *Kultur etxea, 17:00etan.*

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Topaketa

Gurutze Gorriak *Enrédade* ekimenaren bigarren saioa egingo du, adineko pertsonen ongizatea eta sozializazioa sustatzeko. Parte hartu nahi duten herritarrek 943-10 30 22 telefono zenbakira deitu dezakete izena emateko, WhatsApp mezu bat

bidali 647 37 15 26 zenbakira edo, bestela, mezu elektronikoko bat idatzi manuel.decabo@cruzroja.es helbidera.

Gurutze Gorriaren egoitza (Adarra kalea, 1), 10:30etik aurrera.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobilean Elkartek heriotzaren gaia jorratuko du hilabete honetako solasaldian, Iñaki Olaizola eta Nere Erkiaga adituekin. Saio irekia dela gogorarazi dute mahai inguruaren antolatzaileek. "Nola hil nahi duzu? Hiltzen ikasi daiteke? Herri bezala heriotzaren gaiari hobeto erantzuteko, zer egin?" bezalako galderen bueltan hausnartuko dute. *Oriarte Landaberri institutua, 19:00etan.8*

Oihaneko altxorren azala aukeratu dute irakurleek

Iazko portada onena hautatzeko lehiaketan parte hartu dutenen artean bost aterki sorta zozkatu ditu TXINTXARRI-k: Nora Navarro, Imanol Galarraga, Andoni Amonarriz, Beñat Arroyo eta Mikel Izquierdo izan dira irabazleak. Zorionak eta eskerrik asko!

Txintxarri

Joan den urtean zehar argitaratutako aldizkariaren azal onena aukeratzeko lehiaketa aurrera eramanean du TXINTXARRI-ko lantaldeak. Bederatzi portada aukeratu eta irakurleei galdetu die eurentzat gustukoena zein den, horietako bakoitza 1etik 3ra puntuatzeko eskatuta.

Bada, parte hartzeko epea amaituta eta parte hartu dutenen botoak eskuan, iazko azal onena Lasarte-Oriako oihaneko altxorrrak irudikatu zituena izan da, hau da, Inauteri asteburu luze eta koloretsuaren ostean argitaratutakoa. TXINTXARRI-ko erredakzioko langileek bat egin

zuten gaiarekin, horri keinu bat egin eta aste horretan NATIONAL TXINTXARRIGRAPHIC hedabide bihurtuta. Portada horrek 29 boto jaso ditu guztira.

Irakurleen iritziz onena izan den azalak baino zazpi boto gutxiago jaso ditu bigarren sailkatuak, San Pedro Jaiei osteko aldizkari berezikoak. Festetako azken eguneko su festako argazki bat eramane zuten lantaldeak portadara eta bistan da parte hartzaileen arreta deitu duela.

Boto bana gutxiagorekin, berdinketa izan da hirugarren postuan. Batetik, 23. Korrikaren eta Korrika Txikiaren osteko azala aukeratu dute irakurleek,

eta, bestetik, San Pedro Jaiak hasi aurreko aldizkari bereziko portada. Azken horretan aipamen berezia egin zion lantaldeak 30 urtez festen berri ematera ailegatu izanari, urte bakoitzean ateratako irudi banarekin collage berezi bat eginda.

Lehiaketa horretan parte hartu dutenen artean TXINTXARRI-ren bost aterki sorta (arrosa eta beltz bana) zozkatu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: Nora Navarro, Imanol Galarraga, Andoni Amonarriz, Beñat Arroyo eta Mikel Izquierdo. Zorionak saridunei eta eskerrik asko ekimen honetan parte hartu duten irakurle guztiei!



1º 'Oihaneko altxorrrak' - 29 BOTO

2º 'Datorren urtera arte!' - 22 BOTO



3º (Berdinduta) 'Egunez zein gaez, harro' eta '30 urtez jaien berri ematen' - 22NA BOTO JASO DITUZTE BI AZALEK

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



ENTITATEEN IZEN-EMATEA MARTXAN!



Eman izena entitateen bazara entitateak.euskaraldia.eus/parte-hartu/



Norbanakoen izen-ematea martxoan hasiko da!

